



Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.  
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

## **BAKARTXO TEJERIA** **Errenteria, 2024ko apirilaren 11**

Alderdikideok, alderdizaleok, abertzaleok, lagunok, arratsalde on guztioi!

Koldo Mitxelena plazan gara, Errenterian. Koldo Mitxelenaren herrian, eta betiko *Manchester txikian*. Herri bizian. Euskadi zainetan daraman herrian. Biolentziaren garaietan indarkeriari aurre egin zion herrian. Euskara, kultura, ekonomia, zerbitzuetan, elkarbizitzan aurrera, hobetzen segitu nahi duen herrian.

Beraz, Errenteriak baino leku hoberik ez kanpainaren erdialdera hurbiltzeko!

Honaino ilusioz eta gogo biziz iritsi gara. Gipuzkoan eta Euskadin irabazteko indarrarekin. Irabazi egin behar dugu, ziur baikaude hori dela onena Gipuzkoarentzat eta Euskadirentzat. Herri gisa aurrera egiten jarrai dezagun. Eta hori lortzeko behar zaituztegu. Zuetako guztiak, zuetako bakoitza. Behar zaituztegu.

Indarberrituta gatoz, proposamenekin eta ideiekin. Gureak ez dira azalakeriak edo hitz hutsak. Gurea ekimen eta proposamen egingarriak dira. Konpromisoak. Konpromisoa osasunarekin, bizi-proiektu bat garatzeko eskubidearekin, industria eta ekonomia bultzatzearekin, iraunkortasunarekin, segurtasunarekin, gizarte-kohesioarekin, zaintzarekin, familiekin eta autogobernuarekin. Euskal herritarroi ardura zaigun guztiarekin konprometituak gaude.

Gure programa ez da izenburu hutsetan geratzen. Gure programak irtenbideak eskaintzen ditu:

- Itxaronaldia murrizteko talka-plan bat Osakidetzan.
- Bankuek estaltzen ez duten hipotekaren % 20 finantzatzeko abal publikoak.
- Alokairuko eta emantzipazioko laguntzak jaso ahal izateko diru-sarreraren muga pertsonako 30.000 eurora zabaltzea.
- 7.000 etxebizitza berri alokairurako.
- 3.000 milioi euroko fondoa industria-sustraitzerako eta –hazkunderako.
- Seme-alaba bakoitzeko 200 euroko laguntza zazpi urtera arte luzatzea.
- Aitatasun- eta amatasun-baimenak 24 astera luzatzea.
- Egungo autogobernua hedatu eta harreman politikorako estatus berri bat finkatu Estatuarekin.

Eta horrela 575 neurri zehatz, guztira.

Entzun al duzue inor gisa honetako konponbiderik eskaintzen? "Aldaketa", "180º-ko bira", "begirada" "ziklo amaiera" lelo horiek dituzte hizpide, eta zertan zehazten da hori? EAJ kritikatzearaz edo –maizegi- gezurra eta demagogia erabiltzeaz harago.

Ba, horixe dugu jokoan hauteskunde hauetan. Aurrera egitea edo atzera jotzea. Esperientzia, eskarmentua eta kudeaketa onaren aldeko apustua, edo esperimenduak, ateraldiak eta ziurgabetasuna nagusitzea. Euskadirentzat etorkizun hobea ala Euskadi okerrera egitea. Hori da aukera.

Hori da aukeratu behar duguna!

Guk –PNV- iraganean eraikitakoaren eta egindakoren bermea dugu eta horretan oinarrituta ekin eta begiratzen diogu etorkizunari. Konfidantzaz eta apaltasunez aurkezten gara hauteskunde hauetara. Eta emaitzak eskaintzen ditugu: hamarkada batean, langabezia % 16tik % 6,3ra jaitsi da, eta gazteen langabezia % 30etik % 10era; pobrezia % 3,7ra murriztu da, eta gizarte kohesionatuagoa gara...

Hori guztia azaldu behar dugu hauteskundeak egin arte geratzen diren hamar egun hauetan. Eta denok batera egin behar dugu. Behar zaituztegu. Jelkide, jeltzale eta jarraitzaile guztien mobilizazioa eta inplikazioa behar dugu. PNVk Euskadi gobernatzeko jarraitzea nahi duten lagun guztien bultzada behar dugu.

Ahoz aho eta lagunez lagun ekin behar dugu. Alpagataren kanpainara itzuli behar gara. Kanpaina egiteko modu horri esker irabazi genituen trantsizioa lehen hauteskundeak eta ondoren etorri direnak.

Horri buruz, Xabier Arzalluzek honela zioen: "Konstantziak salbatu gaitu, defendatzen dugun horretan dugun fedea". Eta egia da. Hori da gure arrakastaren gakoa. Guk defendatzen duguna sinesten dugu. Ideiak argi ditugu. Konfiantza dugu gure gaitasunean eta gure indarretan. Herri honetan sinetsi eta fidatzen gara.

Elkar hartuta lortuko dugu. 21ean lehen indarra izatea Gipuzkoan. Lehen indarra izatea Euskadin. Horrela izango da. Ez daukat dudarik. Lortuko dugu!

Gora Euskadi askatuta!